Vitoria-Gasteiz hiri hezitzaileak Jazz Uhinak Hirian Barrenaren XIV. edizioa aurkeztu nahi dizue. Ekimen hau, Udal Hezkuntza Zerbitzuaren eta Jazzaldia Elkartearen elkarlanari esker sortu zen jazz mundua era didaktikoan zabaltzeko asmoz.

Vitoria-Gasteiz, como Ciudad Educadora, aborda la XIV edición de Ondas de Jazz en la Ciudad. Este proyecto nació gracias a la colaboración entre el Servicio Municipal de Educación y la Asociación Jazzargia con el fin de divulgar el mundo del jazz de un modo didáctico.

Kontzertu guztiak
19:00etan izango dira,
Jesus Guridi musika kontserbatorioan

www.ondasdejazz.com

## Antolatzaileak / Organizadores

## Laguntzaileak / Colaboradores

# 201920

XIV Jazz Uhinak Hirian Barrena




XIV Ondas de Jazz en la Ciudad

Vitoria-Gasteiz

## 2019ko abenduaren 17a

# JVera Quartet

Laukote horrek José Vera du buru, Madrilen bizi den Mallorcako konpositore eta kontrabaxu-jotzailea. Bakarka aurrera atera dituen hiru lanez gain, ibilbide oparoa egin du saioko musikari gisa, ondoan zituela Antonio Vega, Aute, Chano Domínguez, Concha Buika eta abar. Jacob Sureda mallorcar piano-jotzailea, Ariel Bringuez kubatar saxofoi-jotzailea eta Andres Litwin argentinar bateria-jotzailea izango ditu lagun.

## 2020ko urtarrilaren 21a

# Charles Cooper "Chop" & Triology

Talde horrek jatorriz kide hauek zituen: Charles Cooper "Chop", Columbus hiriko (Ohio, Ameriketako Estatu Batuak) saxofoi-jotzailea eta MC; David Juarez, Torreón hiriko (Mexiko) teklista eta abeslaria; Aitor Bravo, arabar bateria jotzailea, eta Jon Cañaveras, arabar baxu-jotzailea; Alfonso Junguitu, arabar gitarra-jotzailea; eta Alberto "El Ratón" Maldonado, Fuenlabradako perkusionista. Zuzeneko CD bat dute plazaratua, eta 3 urte daramatzate banda gisa. Berezkotasunez mugitzen dira bizi jazz batean, tarteka hip hopera hurbilduta.

## 2020ko otsailaren 25a:

# Adrián Fernández Quartet

Adrián Fernández, proiektzio handiko arabar gitarrista gaztea, eta Iñigo Ruiz de Gordejuela, Berkeleyn trebatutako gipuzkoar pianista, Urjauzia taldeko konpositoreak dira. Musika proiektu horrek ederki uztartzen ditu egungo melodiak, antzinako abestiak, eta jazzaren eta inprobisazioaren esparruko konposizio berriak. Laukotea osatzen dute Javier Callén kontrabaxu-jotzaileak (Huescakoa) eta Rodrigo Ballesteros bateria-jotzaileak (Talavera de La Reinakoa).

## 2020ko martxoaren 17a

# Ricard Miralles Izquierdo, ohorezko makila

Bartzelonan egin zituen musika ikasketak, eta jazzaren munduan hasi zen, Tete Montoliuren eskutik, tronpeta jotzaile eta bibrafonista gisa. 1968az geroztik Serratekin lan egiten du, piano-jotzaile eta musika-zuzendari. 21 filmetako musika konposatu du, eta grabazio ugaritan moldatzaile lanetan parte hartu du. 2016an, Josep Mas "Kitflus"ekin batera, bi pianoz jotako Serraten bertsioak biltzen zituen CD bat argitaratu zuen.

## 2020ko martxoaren 17a

# Combos de la Escuela de Municipal de Música Luis Aramburu y Conservatorio Jesús Guridi

## 2020ko apirilaren 7a

# Big Band de Escuela Municipal de Música Luis Aramburu y del Conservatorio Jesús Guridi

"Big Band Berri" y "Gasteiz Big Band"

## 2020ko maiatzaren 19a

# Gonzalo del Val Trío & Orquesta de Cámara Gregorio Solabarria

Gonzalo del Val bateria-jotzailea buru duen hirukoteak, Marco Mezquida pianoan eta David Mengual kontrabaxuan lagun dituela, Miranda de Ebroko Gregorio Solabarria Ganbera Orkestrarekin partekatuko du agertokia. Asier Pugaren zuzendaritzapean, kontzertu misto bat eskainiko du, Toni Vaquer piano-jotzaile, konpositore eta moldatzaileak sinatuta.

---

Abenduaren 17an hasiko den Jazz Uhinak Hirian Barrena XIV. jazzaldian, DOAKO GONBIDAPENA JASO beharko duzu, iaz bezala. Lehenengo entzunaldirako, abenduaren 9tik aurrera jaso ahalko duzu, ondoren aipatutako tokietan.

- Luis Aramburu udalaren musika eskola: Hedegile kalea, 108 behea (945161618)
- Radio Vitoria: Domingo Martinez de Aragon kalea, 5-7 (945012500)
- Diario Noticias de Álava: Errege Atea, 24 (Bake kalearekiko izkinan) (945 201 000)
- Turismo Bulegoa: Plaza Berria, 1 (945 16 15 98)
- Laboral Kutxaren bulegoa: Gasteiz hiribidea 78 (945 22 78 04)

# Diskoak

2014az geroztik, kontzertuetako baten grabazioa jasotzen duen disko tematiko bat argitaratzen dugu; haren irabaziak gobernuz kanpoko erakundeei ematen dizkiegu.



Jazz Uhinak Hirian Barrena zazpigarren diskoa, 2019/2020koa, solidarioa izango da, aurrekoak bezala. Oraindik ez da hautatu diskoaren salmentak ekarritako dirua gobernuz kanpoko zein erakunderi emango zaion.
Jazzargia Kultur Elkarteak orain arte grabatutako disko guztiak bezala, entzunaldiaren egun berean grabatuko da berriro ere zuzenean. Gasteizko Charles Cooper "Chop" & Triology da Jazz Uhinak Hirian Barrena zazpigarren diskoa grabatzeko aukeratu duten taldea. Talde horrek zikloen adiskide bat du buru: David Juárez.

Kontzertu guztiak 19:00etan izango dira, Jesus Guridi musika kontserbatorioan.

Kontzertu guztiak 19:00etan izango dira, Jesus Guridi musika kontserbatorioan.